

2

ARTIKULUA

gizartea

LAUDIO

HERRITARREN INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA PARTE HARTZEA

XXXII



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



Ingurugiroaren arazoari buruz kontzientzia hartzea zein parte hartzeko portaera aktiboak herritarrek hartzea, berebiziko garrantzia duten prozesuak direla garapen jasangarriaren helburuak lortzeko. Ingurugiroa hobetzeko edozein programa martxan jartzen denean nahitaez herritarren

laguntza izan behar du. Herritarren aldetik ingurugiroarekiko konpromisoak hartzea prozesu konplexua da eta bertan alde zuzeneko nahitaezko urratsak dira ingurugiro arloko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza eskaintzea.

HERRITARREN INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA PARTE HARTZEA

Laudioko Udala, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea denez, bizilagunen eta auzokideen ingurugiro kontzientziak

handitzeko erraztasunak eman beharra dauka. Horretarako funtsezkoa da bera inplikatzeko herritarren informazioan eta prestakuntzan.

Zentzu horretan, Laudioko Udalak, 21 Agenda Lokalaren garapen prozesuan, hartu du konpromisoa:

- **Informazioa emateko aldi berean udalerrian ingurugiroaren egoeraz, eskola kanpainak egitea eta kolektibo guztiei zuzenduta;**
- **Aldi berean kontsultatzea herritarrei ingurugiro izaera duten gaian, hala nola egin izan den eta egiten ibili garen auzo auzoko batzar irekietan, eta**
- **Ingurugiro Foroa bultzatzea, bertan agente ekonomiko eta sozial ezberdinek parte hartzen dutelarik.**

Laudioko Ingurugiro Foroa 2001eko apirilean sortu zen, eta urte horretan zehar eta 2002an izan diren bileretan eztabaidatu eta tratatu da udalerriko ingurugiroaren errealitatea, ekarpenak, proposamenak eta iradokizunak jasotzeko hurrengo agente ekonomiko eta sozial ezberdinen aldetik. Aldi berean, Laudioaren Jasangarritasunerako Ekintza Plana prestatu eta lantzeko, Ingurugiro Foroan parte hartzen dutenen lankidetzatza izan dugu, oinarritzeko lerro estrategikoak xedatzerakoan eta kudeaketa jasangarriantza bidean udalerriko osoa bideratzeko garatu behar diren aktuzio edo proiektuak zehazteko orduan.



- Garapen jasangarriari buruzko informaziorako irribide eta zabalkundea bermatzea.
- Erabakiak hartzeko prozesuetan herritarren parte hartzea bultzatzea.
- Jasangarritasunaren arloan herritarren prestakuntza bultzatzea.

Laudioren Jasangarritasunerako
ekintza plana



Laudion zer egin da?

- **Ingurugiro Foroa bultzatzea.**
- **Ingurugiroa Diagnostikoa eta Jasangarritasunerako Ekintza Plana ezagutarazi eta zabandu herritarren artean.**
- **Ingurugiro informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea aldian aldian.**



Laudion zer falta da egiteko?

Laudioko Udalak jarraituko du bultzatzen Ingurugiro Foroa organo egonkor eta iraunkor legez eztabaida, gogoeta, parte hartu eta ingurugiro gaietan aholkua jasotzeko, izan ere, orain arte izan dugun eskarmentutik ateratzen dugun ondorioa baita oso tresna egokia dela herritarren parte hartzea bideratzeko udalaren kudeaketa politiketan.

Laudioko udalak Ingurugiroaren Diagnostiko eta Ekintza Planaren laburpen bat argitara emango du herritar guztiak ezagutzeko aukera izan dezaten eta dugun ingurugiro errealitateaz euren iritzia emateko eta euren iritziz hobetze biderako zein ekintza edo proposamenak aurkezteko.

Ingurugiro informazioa eta prestakuntza dira, zalantzarik ez, ingurugiro arazo ezberdin ugariren konponbidearen oinarri.

Herritarrei informazioa eman behar izatearen beharraz jabetuta, Laudioko Udalak bultzatu eta sustatuko du normaltasunez eta erregularitatez zenbait kanpaina populazioko talde ezberdinei zuzenduta, publikoari orokorrean zuzendutako azalpeneko hitzaldiak legez, langabetuentzako prestakuntza ikastaroak, ikastetxekoentzako ekologi ibilaldiak, ekologia eskolara kanpaina...



Zerbeit egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat**.

Hau da 13 artikuludun bildurraren hirugarren alea. Bilduma egin nahi baduzu, udaletxetik aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizugu, udaletxeko Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu.